



FUNTSEZKO SOZIETATEAK, ALIANTZAK ETA ELKARTEAK

Gure enpresak, batez ere, bi markarekin lan egingo du modu eksklusibo batean. Alde batetik Maybelline kosmetika-markarekin, aurpegirako produktuak ezin hobekak direlako eta, bestetik, L'oreal-marka ospetsuarekin, horko xanpua ilea ederki zaintzen duelako.

Bi marka horiek oso kalitate onekoak direlako aukeratu ditugu, eta, azken finean, horixe da gure bezeroei eskaini nahi dieguna.

Laburbilduz, guk haien produktuak bakarrik erabiltzeagatik, haien merkeago salduko dizkigute, azken finean, guk haien bi markak bultzatzen eta jendeari erakusten ari garelako.

Aldebiko aliantza bat izango da beraz, guk produktuak merkeago lortuko ditugu eta beraiek gure zerbitzuen bitartez salmentak eta irudia irabaziko dituzte.



L'ORÉAL



Gainera, Udalarekin eta Udaltzaingoarekin harreman estua mantendu beharra dugu. Zerbitzua eman ahal izateko kamioia aparkatzeko baimenak kudeatu behar ditugulako. Harreman honen bitartez, gure ibilbideen eta daten informazioa ebidali beharko diegu beharrezko baimenak kudeatzeko, noski.

